

## Martitz, iheslaria

**O**rain dela sei urte azaldu zitzaizen arazoak erabat txoratu ditu astronomoak. Martitzi buruzko azterketa xehetua egitera joandako guztiek esku-hutsik itzuli behar izan dute etxera. Etsipenaren arrazoia Martitzen



**Bryan Butler Mexiko Berriko Astronomia Behatokiko buruak dioenez, Martitzen ekuatorean gertatzen den fenomeno bitxian sumendien aktibitateak eragina izan lezake.**

ekuatorean dago. Radarraren argia zurgatzen duen zerbait atzeman dute bertan. Beraz, radarrari ihes egiten dion eskualde oso bat dago Martitzen. Nola liteke? 1988an hasi ziren astronomoen buruhausteak. Kaliforniatik igorri zuten orduan Martitzera radar-seinalea. Mexiko Berriko Behatokian zain geratu ziren, radarrak bidalitakoa

jaso eta aztertu ahal izateko. Planetaren irudi berrak jaso bazituzten ere, ez zen ekuatoreko eskualdearen arrastorik ageri.

Bryan Butler Mexiko Berriko Astronomia Behatokiko buru da eta azken sei urteak Martitzi begira eman ditu, radarraren argiak isladatzen ez duen eskualdean zer ote dagoen ikertzen. Agidanez, bere lan saiatuak eman

du fruiturik jadanik. Texasen burutu berri den Urteroko Astronomia Biltzarrean iragarri duenez, Martitzen ekuatorean gertatzen den fenomeno bitxian sumendien aktibitateak eragina izan lezake. Astronomia Biltzarrean azaldu zuen tesiaren arabera, Martitzeko ekuatorea sumendi-harriek estalita duten eremu zabala da. Errautsek sortutako geruzameheak radarraren argia zurga dezakeela dio Butlerrek. Texasen azaldu zuenez, tesi hori baieztatzeko makina bat saio egin dute Mexiko Berriko ikerlariak. Besteak

beste, Galapago Irletan sortzen diren fenomenoa azaldu zituen, Martitzen gertatzen denaren adibidetzat jarritz.

## Ilargira bidaia poltsikoa urratu gabe

**N**ASA Agentzia Ilargirako bidaia berria prestatzen ari da. 1997an egingo den ikerketa-espeditzioaren helburua Ilargiaren Hego eta Ipar Poloetako izotz-lakuak aztertzea izango da. Bidaian parte hartuko duten ikerlariak uste dutenez, Ilargiaren gainazalean atzeman diren lakuetak izotza gizakiaren kontsumorako erabili ahal izango da etorkizunean.

Prestatzen ari diren azken bidaia horretan, bestalde, 1970eko hamarkadan Apollo espaziuntziak egin zituen ikerketak osatzeko modurik izango da. Ilargiaren inguruko grabitazio-eremuen azterketa xehetua egingo dute, Apollon emandako datuak osatzeko asmoz. Bidaiaren antolakuntzak polemika bizia sortu du NASArako lan egiten duten enpresen artean, agentziaren lan-filosofia berriak ezustean harripatu baititu gehienak eta aurrekontuak murrizteko agindu zorrotza jaso baitute. Lema berria aurkitu omen dute NASAn ere: "Merkea, azkarra eta ona". Datu fidagarrikerik kaleratu ez bada ere, arestian aipaturiko bi-

daiak lemarekin bat datorrela diote. Aurkezturiko proiektuen artean, merkeena aukeratu du NASAk, 150 milioi dolarreko kostua izango duena hain zuzen.

## H-II, elkarlanerako eredu berria

**B**akarka baino hobe elkarlanean. Irakaspena ongi hartu omen dute Japonian eta Martxoaren 18an irten zen espaziora ikasitakoaren lekukoa. H-II izeneko kohetearen jaurtiketak lan-eredu berria ezarriko duela uste da. Japoniako historian lehen aldiz, hiru erakunde hartu dute parte era horretako proiektu batean: Espaziorako Institutuak, Garapenerako Espazio-Agentziak eta Energiaren eta Industriaren Garapenerako Elkarreak. Lana arloz arlo banaturik, erakunde hauen eskuetan izan dira kohetearen sorrera, garapena eta jaurtiketa, baita azken orduko arazo teknikoak konpontzea ere. H-II kohetearen lana ez da xamurra izango. Besteak beste, propulsiorako sistema elektriko berria ikertzeko erabiliko da kohetea, teleskopio-eredu berria probatu eta material elektrikoan portaera aztertu eta gero. Etxerako bueltan, proiektua bideratu duten hiru erakundeek erabili ahal izango dituzte lortutako emaitzak.

